

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Pilar Unanue Odriozola

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1941)*

Aurkibidea



Biografia



Urrestillako Bikendi baserrian jaio zen 1941ean. Aita bertakoa eta ama Suola baserrikoa zituen, eta 10 anai-arrebako sendia zuen. Umetan, Urrestillan ibili zen eskolan. Jaunartzea egin ondoren, Donostiara joan zen neskame 17 urtera arte. Donostian neskame zebilela, bertako 'Sagrado Corazon' mojen eskolara joaten zen. 17 urterekin baserrira bueltatu eta berehala Beasaingo 'Castillo' hotelera joan zen neskame lanetara. 23 urterekin ezkondu eta senarraren jaiotetxera joan ziren bizitzera, Eizagirre auzoko Ibartzabal etxera. Negutegi ugari jarri eta landare eta barazkiekin lan ugari egin du urteetan. Euskara ikasi nahi duen jendea hartu izan du etxean uda partean, urte askotan.

Zintak

AZP-038

- **Proiektua:** Azpeitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-01-27
- **Iraupena:** 43 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Ezkondu arteko bizimodua

- **Erref:** AZP-038/003
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:02:14. **Bukatu:** 00:03:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Komunioa egin bitartean, umetako maistra batekin ikasi zuen. Urrestillan bere etxean ematen zituen klaseak. Komunioa egin eta gero, Donostiara eraman zuten bere ahizpa zaharrenaren umea zaintzera, eta bitartean eskolara joan zen. 16-17 urte zituela, jaiotetxera itzuli zen. Bere gogoia ile-apaintzailea izatea zen arren, aitak ez zion utzi hartarako ikasten. Zerbitzari joan zen, eta 22-23 urte zituela ezkondu zen.

2. Urrestillako eskolako oroitzapenak

- **Erref:** AZP-038/005
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erligioa » Eliza giroko ospakizunak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Urrestillako eskolako maistrari buruz hitz egiten du: dotrina erakusten zien gehienbat, kale-etxe batean ematen zien eskola, goiz eta arratsalde joaten ziren eskolara... Eskola etxetik urruti xamar zegoen, eta etxetik eramaten zuen bazkaria. Gerora, Donostiara joan zen ikastera, han bizi baitzen ahizpa, eta aitak hari laguntzea nahi zuen.

3. Donostian zegoeneko bizimodua

- **Erref:** AZP-038/006
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:06:18. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Donostian zegoela, goizez baserriko lanetan eta umea zaintzen ibiltzen zen; eta arratsaldetan, Antiguako moja batzuen eskolara joaten zen ikastera. Mojekin erdaraz ikasten zuten, eta berak hasieran arazoak izan zituen ez baitzuen ulertzen; gerora, hala ere, ikasi zuen. Uniformea eramaten zuten, eta nolakoa zen deskribatzen du.

4. Debekatutako janzkerak

- **Erref:** AZP-038/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Garai hartan ezin zuten mahukarik gabeko kamisetarik eraman.

5. Donostiako bizimodua eta aisialdia

- **Erref:** AZP-038/009
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:12:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Lanbideak » Neskameak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Donostian egon zen bitartean, umeak zaintzen ibiltzen zen. Donostian aisialdian zer egiten zuen kontatzen du. Pixka bat koskortu zirenean, erromerietara joaten ere hasi ziren.</p>

6. Donostiako aisialdia: hondartza eta antzerkia

- **Erref:** AZP-038/010
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:12:13. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Donostian zeudela, ez ziren joaten hondartzara, bekatu larria baitzen. Lehengo bainujantziak nolakoak izaten ziren deskribatzen du. Zinea bazegoen, baina beraiek ez zuten dirurik izaten joateko. Elbira Zipitria andereñoak behin Kursaalera eraman zituen teatroa ikustera. Lehengo eta oraingo Kursaalera alderatzen ditu.

7. Donostiako giroa

- **Erref:** AZP-038/011
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:14:16. **Bukatu:** 00:15:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Donostian lagun euskaldunak zituen, nahiz eta Donostian euskara asko ez zen egiten. Oinez joaten zen alde batetik bestera. Etxean txikienak bakarrik izan zuen bizikleta.</p>

8. Emakumeen estilismoa lehen

- **Erref:** AZP-038/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:17:07. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lehengo janzkeraz, orrazkeraz eta makillajeaz hitz egiten du.

Transkripzioa

- Esan dezu gona plisatuk, mediak...
- "Medias de cristal", horrekin akordatzen naiz.
- Ordun gona jazten zenuen ordun?
- Bai, bai, bai, gona plisatu bat banun, gorrixka hola, ez dakit, "Príncipe de Gales" ez, baiño ba, zerbait hola, eta beste soiñeko gris bat peto batekin hola, ta bai, bueno.
- Eta orrazkera ta makillatu ta hoik?
- Ke ba, bueno, illie moztu, moztea pelukeire, moztea, baiño hortik aurea...

- Makillajeik izaten zan? Ez?
- Ezta ezpaiñek pintau're, ezta ezer'e. Hori gero ya haunditu nintzenien, pixkat nere kexa, baiño han ezta ezer ez nun ein.
- Pelukeria ta juten ziñaten?
- Hori, illie moztea bakarrik.
- Ze eramaten zan: ille motza o luzea?
- Bai, motza, geyena motza zan, ibiliko zan ordun eta gero ya haunditzen,ta pixkat hasi nintzen nere kexa baiño, han ille motza.

9. Urrestillatik Castillora lanera

- **Erref:** AZP-038/016
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:18:10. **Bukatu:** 00:20:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Donostiatik Urrestillara itzuli zenean, Castillora joan zen lanera. Lan hura nola lortu zuen eta zer lan-baldintza zituen azaltzen du. Lan asko egin zuen hotel hartan.</p>

10. Hoteleko lanak eta uniformeak

- **Erref:** AZP-038/018
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:20:56. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Castillo hotelean zer jende klase ibiltzen zen azaltzen du. Zer lan egin behar izaten zituen han ere aipatzen du. Bere uniformeak nolakoak zen deskribatzen du.

11. Hoteleko eskupekoak eta soldata

- **Erref:** AZP-038/020
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Hotelean eskupekoak jasotzen zituzten; itsulapiko batean sartzen zituzten; eta hilabete bukaeran, zerbitzari guztien artean banatzen zuten han zegoen dirua. Handik lortutako diruarekin hainbat gauza erosi ahal izan zuen. Soldatan irabazitako dirua etxean ematen zuen, eta gurasoek libreta batean sartzen zuten, gero ezkontutakoan emateko.

Transkripzioa

- Eta propinak eta izango zien?
- Bai.
- Bai?
- Bai.
- Kamarera bakoitzei ematen zizuen zuen propina?
- Ez, normalki mahaiyen uzten zebeu o fakturakin batea uzten zebeu propinak, eta hoyek danak juten zien itxulapiko batea, leku batea. Eta hillien bukaeran partitzen gendun neskak, neskak partitzen gendun. Bai, bai, bai, oin baiño propina gehio. Ni propinakin akordatzen naiz ezkontzeko in nitun izerak eta... Ni akordatzen naiz gauza asko erosi nun propinakin. Eta lehen'e pentsa zazu ze mentalidade: gordetzen gendun hilleko soldata hori, gordetzeko ekartzen nun etxea, eta propinakin ba pasatzen giñen gure gauzak erosi, erropak o zapatak o...
- Irabazitako dirue zutzako ala etxen entregatzen zenun?
- Etxea, etxean, etxean entregatzen nittun. Nik etxien entregatzen nun. Baiña aitek gordetzen zigun guretzat gure kartillan e? Bai, bai, bai. Ta gero ezkontzeakuen, ba, " hor zurie, zure kartilla".

12. Elizatik piper egiteko asmatutakoa

- **Erref:** AZP-038/023
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:24:47. **Bukatu:** 00:26:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Igandetan bezperatara joaten zirenez, ez zuen denborarik izaten zinera joateko. Behin zinera joan eta elizara ez joatearren egindakoa kontatzen du.

13. Herrien nortasuna

- **Erref:** AZP-038/024
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:26:39. **Bukatu:** 00:27:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Azpeitia eta Azkoitiaren artean beti egon izan da pikea. Bera Urrestillakoa da, eta lehen Urrestilla nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Bazeon pikeik azpeiti ta azkoiti arten?
- Bai, beti, beti egon da. Hasten baziñan "eske hau azpeitiarra ta hori axkoitiarra" ta... Geo esaten zeben, "ez, San Inaziyo erdi-erdiyen dao ta horrek iten ditu pakiek" esaten zeben. Bai, guk ez deu euki holako...
- Zuek nahiz ta Atzerrekako parten eon, beti...
- Ez, urrustildar, Urrustil da guretzako, hor batayautakuak gea, ta hori izen da guretzako...
- Nolakoa zan Urrestilla ordun?
- Ba oin baiño jende geyo ikusten zendun igual. Ez dakit, mezetan ta mezetatik ertendakun etxea bidien juten ziñen ba kamiñue bete-bete jende hitz eiten, kontuk esaten... Eta andrak andrakin ta gaztiekin gaztiekin te... Bai.
- Dendak, tabernak... bazien?
- Bai, denda bat zan ba taberna ta dana iten duna. Gizonak juten zien jai goizetik zerbait hartzea. Ta tabernak'e asko zauden e? Oain baiño geyo igual tabernak.

14. Emakumeen eta gizonen arteko diferentziak

- **Erref:** AZP-038/025
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:27:43. **Bukatu:** 00:29:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Emakumeek ez zuten tabernara joateko ohiturarik, eta sartuz gero, gaizki ikusia zegoen. Etxean ere arau desberdinak zeuden mutilentzat eta nesKentzat. Ilunpetan ibiltzeko zer argi erabiltzen zuten azaltzen du.

15. Berrikuntzak baserrian: bidea, ura eta argia

- **Erref:** AZP-038/026
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:29:18. **Bukatu:** 00:31:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Bidea oso berandu egin zen. Lehen gurdibidea zegoen, eta gerora egin zen autoentzako errepidea. Bera Donostian zegoen bitartean jarri zituzten baserrian ura eta indarra. Hori baino lehen ura nondik eta nola ekartzen zuten azaltzen du. Arropa garbitzeko, sukalde bazterrean eduki ohi zuten hartarako lekua.

16. Baserritarrak vs kaletarrak

- **Erref:** AZP-038/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:31:29. **Bukatu:** 00:32:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Arropak anai-arreben artean konpartitzen zituzten. Kaletarrek burla egiten zieten baserritarrei.

Transkripzioa

- Makiña bat erropa ibiliko zenduen, batek utzitakoa o ondo geratzen zitzaiona [...].

- Ahizpek behintzat, bueno, ahizpek alkarri: "ai, nik hau jantziko niken ba, ta, hori jantziko niken ba, ta"... Eneee, bueno, ta iñok emandako erropakin eukitzen gendun holako nobedade bat bezela eukitzen gendun hola.

- Nahiz ta ibilitako zaharrak izan?

- Bai, bai, bai, bai.

- Antzematen zenuen baserritarrak eta kaletarran arteko burla hori, edo baserritarrak ziñatelako?

- Bai, bai, baserritarrak beti pixkat hola, ze esango dizut ba? [...] ez, baiño bai. Ta oin esaten debenin, "ala! Beitu baserritarrak halakuk" eta "baserritarrakin kontuz e?" esaten diyobet "zeatik ez die, ez die atzea beira eotekuk eta e?". Holakuk esaten dizkobet e?

17. Telefonoa jarri aurreko komunikazioa

- **Erref:** AZP-038/028
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:32:19. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Telefonorik ez zuten izan baserrian 1980 ingurura arte. Bitartean, kaleko kabinatik deitzen zuten. Mutilarekin hitzordua jartzeko nola moldatzen zen azaltzen du.

18. Mutil kontuak etxean

- **Erref:** AZP-038/029
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:33:30. **Bukatu:** 00:34:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Mutil-lagunarekin hasi zenean, 19 urte inguru zituen. Familian aurkezpenak nola egin zituzten azaltzen du. Gurasoekin ez zen mutil kontuez hitz egiten normalean.

19. Baserrian landatu eta azokan saldu

- **Erref:** AZP-038/031
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:35:43. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Azokara saltzera joandakoa da. Donostiako etxean barazki asko zeudenez, azokan saltzen zituen; eta gerora etxean, negutegia zutenez, ohiturarekin jarraitu zuen. Negutegian zer landatzen zuen azaltzen du.

20. Negutegiekin nola moldatu izan den

- **Erref:** AZP-038/033
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:37:33. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Negutegiekin nola moldatzen zen azaltzen du. Lurrarentzat ongariak erabili izan ditu: lehen simaurra, orain bestelako produktu bat. Lehen erreka ura erabiltzen zuten.

21. Euskara irakasten baserrian

- **Erref:** AZP-038/035

- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:40:11. **Bukatu:** 00:41:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara

Laburpena:

Urtero etorri izan zaie norbait etxera euskara ikastera. Ohitura hori duela 25-30 urte hasi zuten, eta nola hasi zuten azaltzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com